

#udaltop15



udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

HEZKUNTZA
SOZIOLINGUISTIKOA.
EUSKAL HERRIAN HAN ETA
HEMEN DAUDEN MATERIAL
ETA BALIABIDEEN BILKETA,
AZTERKETA ETA SAILKAPENA

www.udaltop.eus

IZARO ARRUTI AGIRREURRETA
BADALAB



HEZKUNTZA SOZIOLINGUISTIKOA.
EUSKAL HERRIAN HAN ETA HEMEN
DAUDEN MATERIAL ETA BALIABIDEEN
BILKETA, AZTERKETA ETA SAILKAPENA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. HELBURUAK ETA IKERKETA-GALDERAK	4
3. MARKO TEORIKOA	5
4. METODOLOGIA	13
5. EMAITZAK	16
6. ONDORIOAK	20
7. AZKEN GOGOETAK	22
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	24

1. SARRERA

Helburu nagusi bat izan dugu lan hau burutzerako orduan: Euskal Herrian lanketa hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan burutzeko dauden materialak eta baliabideak biltzea, aztertzea eta sailkatzea.

Ez da gai berria lan honetan garatzen den hipotesia. Ikastetxeetan tradizionalki pisu handirik izan ez badu ere, aditu asko dira soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren lanketa gazteen hizkuntza-jarrera eta -ohituretan eragiteko eta euskararen erabilera sustatzeko ezinbesteko-tzat jotzen dutenak. Hala izanik, helburu nagusi bat izan dugu lan hau burutzerako orduan: Euskal Herrian lanketa hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan burutzeko dauden materialak eta baliabideak biltzea, aztertzea eta sailkatzea.

Euskal Herriko egungo egoera soziolinguistikoa abiapuntu gisa, gazteen euskararen ezagutzari, erabilerari eta hizkuntza-ideologiei erreparatuko diegu lehenik (3.1. atalean). Dakigun bezala, eskoletan D eredua nagusi den garai honetan gazteen ezagutza-maila "bermatuta"¹ dago, ez ordea erabilera. Gainera, gazteek egunean zehar bizi dituzten hizkuntza-egoerak kudeatzeko aurreiritziak dituzte helduleku. Jarraian (3.2. atalean), *soziolinguistika* eta *hizkuntza-ekologia* terminoen inguruan jardungo dugu, hitz bakoitzaren definizioak emanez eta adituek horien inguruan esandakoak azalduz. Aipatu egungo egoerari aurre egiteko, hainbat adituren iritziak dakartzkigu ondoren (3.3. atalean), esan bezala, hizkuntzen garapen sozialari (soziolinguistika) eta hizkuntzen arteko elkarbizitzari (hizkuntza-ekologia) buruzko ezagutza zientifikoa ikasleei transmititzeak eta horren inguruko hausnarketak egiteak, ikasleen hizkuntza-ohituretan, kontzientzia linguistikoa eta hizkuntza-aniztasunaren inguruko pertzepzio eta jarreretan positiboki eragin dezakeela defendatzen dutenak. Jarraian (3.4. atalean), Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Komunitateko eta Ipar Euskal Herriko curriculumek diotena jasoko da, etapa eta lurralde bakoitzerako ezarritako helburuak eta edukiak zein diren ezagutu ahal izateko. Ondoren (4. atalean) gure bilketa aurrera eramateko jarraitutako metodologia azalduko dugu, erabilitako tresnak aurkeztu eta metodologia bera ebaluatuko.

Behin gazteen euskararen erabilerarekin eta hizkuntza-ideologiarekin dagoen problematika, adituek eta Euskal Herriko curriculumek diotena eta bilketarako jarraitutako metodologia ezagututa, gure laneko muina dakarkigu emaitzak biltzen dituen atalean (5. atalean). Lehenik, bilketa-fasean lortutako materialak eta baliabideak aurkeztuko ditugu, formatuaren eta modalitatearen arabera sailkatuz (5.1. atalean). Bigarrenik, Euskal Herriko ikastetxeetako errealitatea zein den azalduko dugu (5.2. atalean), gure lana burutzeko egindako bidean identifikatutako ahulguneak eta erronkak aurkeztuz. Hirugarrenik, bilketa egiten ari ginela aurkitu dugun eredu inspiragarri bat dakarkigu, Galiziako hezkuntza arautuan soziolinguistika eta hizkuntza-ekologia nola lantzen duten azalduko dugularik (5.3. atalean).

Bukatzeko, gure lanetik ateratako ondorio nagusiak (6. atalean) eta azken gogoetak (7. atalean) bilduko ditugu. Horietan, lan hau buruzetik ondorioztatutako ideia nagusiak azaldu, lan honek egin dezakeen ekarpenaz jardun, baita etorkizunerako proposamen-ildoak aurkeztuko ere.

¹ Hernándezek (2020) dioen moduan, D ereduko ikasle guztiek ez dute euskara maila bera lortzen.

2. HELBURUAK ETA IKERKETA-GALDERAK

Gure lanaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Euskal Herrian soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren gaiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan lantzeko dauden materialak eta baliabideak biltzea.
- Euskal Herrian Soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren gaiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan lantzeko bildutako materialak eta baliabideak aztertzea eta sailkatzea.
- Hezkuntza-komunitateko eragile ezberdinek gaion lanketaren errealitateaz dituzten pertzepzio eta iritziak ezagutzea.
- Osatutako sailkapena hezkuntza-komunitatearen eskura ipintzea.

Gure ikerketa-galderak hauek izan dira:

- Soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren gaiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan lantzeko Euskal Herrian zein material eta baliabide daude?
- Nolakoak dira material eta baliabide horiek? Osatuak? Aurkitzeko errazak? Publikoak? Antolatuak?
- Zein pertzepzio eta iritzi dituzte hezkuntza-komunitateko pertsona eta eragileek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan soziolinguistika eta hizkuntza-ekologia gaien lanketaren inguruan.

3. MARKO TEORIKOA


D ereduan askoz ikasle gehiago daude, 1983an ikasleen % 12 izatetik 2015an ikasleen % 68 izatera igaro gara. Gauzak horrela, azken 40 urteetan gazteen artean euskararen ezagutza, hots euskaldunen kopurua, nabarmen igo dela aski ezaguna da.

Atal honetan, lehenik, egungo Euskal Herriko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen profil soziolinguistikoak azalduko ditugu (4.1 atalean). Jarraian, soziolinguistika eta hizkuntza-ekologia terminoak definituko ditugu (4.2 atalean) eta horiek hezkuntza arautuan lantzearen inguruko adituen iritziak ekarriko ditugu gurera (4.3 atalean). Amaitzeko, EAEko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Ipar Euskal Herriko curriculumak ikertuko ditugu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren lanketak horietan duen presentzia ezagutu ahal izateko.

3.1. EGUNGO DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA BATXILERGOKO IKASLEEN PROFIL SOZIOLINGUISTIKOA


Azpiatal honetan, Euskal Herriko gazteen euskararen ezagutzari, erabilerari eta hizkuntza-ideologiei erreparatuko diogu. Ezagutzari eta erabilerari dagokionez, Amonarrizek 2019ko Eskola Hitzun Bila jardunaldian aipatutako metafora bat erabiliko dugu. Bere ustetan gaur egun gazte euskaldun herrenak ditugu, beraz, gazteen artean euskararen normalizazioari dagokionez, zer da orain arte lortu dena? Baso erdi bete. Euskararen eremu osoan VI. Inkesta Soziolinguistikoaren (Eusko Jaurlaritzak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), Nafarroako Gobernua (Euskarabidea) eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2016) emaitzei erreferentzia egiten badiegu, honako datuekin egiten dugu topa: ikastereduei dagokionez, D ereduan askoz ikasle gehiago daude, 1983an ikasleen % 12 izatetik 2015an ikasleen % 68 izatera igaro gara. Gauzak horrela, azken 40 urteetan gazteen artean euskararen ezagutza, hots euskaldunen kopurua, nabarmen igo dela aski ezaguna da.

1. irudia: Euskaldunen bilakaera adinaren arabera euskararen eremu osoan, 1991-2016 (%). Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.



3. MARKO TEORIKOA

1991n gazteen % 22,5ak soilik zekien euskaraz eta 2016an berriz gazteen % 55,4ak. Gainera, 16-24 urte bitartekoen % 53,9ak eskolan edo euskaltegietan jaso du euskara, eta horrek hezkuntzak euskararen unibertsalizazioan izan duen garrantzia islatzen du.



Grafikoan ikusten den bezala, 1991n gazteen² % 22,5ak soilik zekien euskaraz eta 2016an berriz gazteen % 55,4ak. Gainera, 16-24 urte bitartekoen % 53,9ak eskolan edo euskaltegietan jaso du euskara, eta horrek hezkuntzak euskararen unibertsalizazioan izan duen garrantzia islatzen du. Euskaldunen kopuruak gora egin ahala, hizkuntzaren erabilerak ere gora egin du adin-tarte guztietan, adinekoen artean izan ezik.

Badira, ordea, gorakada horren ilusioetan erortzearen arriskuaz hitz egiten duten adituak; honako hau dio Jone Miren Hernández hizkuntza-antropologia ikertzaileak (2020:109):


Esan daiteke azkenengo lau hamarkadetan euskarazko irakaskuntza izugarri zabaldu dela. Jakina da, eskolaren bidez, belaunaldi berriak, milaka ume eta gazte euskaldundu direla. Baina hedapen horrek homogeneousazio faltsu baten irudia sor dezake. Argi dago haur eta gazte guztiak ez direla modu berean euskaldundu. Denek ez dute euskara maila bera lortu. Baina, askotan D ereduko datuak edo euskararen ezagutza datuak ematean, badirudi irudi trinko edo konpaktu bat sortzen dela.

Beraz, zer da lortzeke dagoena? Hutsik dagoen baso erdia betetzea. Aipatutako erabileraren gorakada horretan, izan ere, bada 2013tik sumatzen dugun fenomeno bat. Euskal Herrian euskaldun-kopuruak gora egin badu ere, kale-erabileraren ehunekoak beherantz doaz adin-tarte guztietan, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala:

3. MARKO TEORIKOA

Gogoeta eta diskurtso sendo baten faltan, gazteak aurreiritziez baliatzen dira egunean zehar bizi dituzten hizkuntza egoerak kudeatzeko, ahal duten moduan.

2. irudia: Euskararen erabileraren bilakaera, adin-taldean arabera. EUSKAL HERRIA, 1989-2016 (%). Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.



Bestalde, gazteen artean euskararen erabileraren beherakada orokorra izan da Hegoaldean, Nafarroan izan ezik. Gazteen erabilera 2013tik 2017ra Gipuzkoan % 36,6tik % 34,1era jaitsi da, Bizkaian % 8,6tik % 7ra, Araban % 5,7tik % 5,2ra, Nafarroan % 5,6tik % 6,6ra igo da eta Iparraldean, berriz, % 3,8an mantendu egin da. Kale-erabileratik hezkuntza arautuan D ereduko ikasleen arteko erabilerari erreparatzen badiogu, fenomeno berdinarekin egingo dugu topo. Arrue ikerketak 2011-2017 urte tartean EAEko eskolako hizkuntza-erabileren bilakaera neurtu du eta emaitza nagusietako bat honako hau da: “D ereduan ikasten ari diren ikasleen datuak soilik alderatzen baditugu, ikasleen lau erabileretan (...) 2017ko datuak baxuagoak dira 2011n baino” (Martinez de Luna eta Suberbiola, 2020:33).

Gauzak horrela, esan daiteke eskolak, esparru gisa, gaitasuna duela gaur egun EAEn gizarteko batez bestekoa baino nabarmen euskaldunagoa den esparru bat eratzeko. Hala ere, “ikasleak, adinarekin bate- ra, euren sozializazioan aurrera egin ahala, gizartearen eragina indar handiagoz sartzen d(ela) eskolako ingurunean, besteak beste, baita hizkuntzak erabiltzeko gizarte- arau inplizituak ere” (Martinez de Luna eta Suberbiola, 2020:34).

Hizkuntza-ideologiari dagokionez, erabileran eragiten duen faktore kualitatibo garrantzitsua da. Gazteen hizkuntza-ideologiari erreparatzen badiogu, zer da orain arte lortu dena? Baso erdi betea. “Euskararen eremu osoko biztanleen gehiengoak interesa erakusten du euskararekiko. Izan ere, biztanleen % 55,1k euskararekiko interesa handia edo oso handia du: % 29,6k oso handia, % 25,5k nahiko handia. % 7,5 dira ez dutenak bat ere interesik” (Eusko Jaurlaritzak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), Nafarroako Gobernua (Euskarabidea) eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2016:31). Zer da lortzeko dagoena? Hutsik dagoen baso erdia betetzea. Izan ere, euskararen aurkako diskurtsoen “borroka luzea izango da, azken aldir bertatik zein kanpotik haizatzen direnak” (Amonarriz, 2019). “Bestalde, belaunaldi gazteek errazago aldatu izan ohi dituzte euren hizkuntzaren aldeko jarrerak, ospe handiagokoa de- naren alde eginez” (Uranga, d.g.). Hernándezen (2020) ustez, gazteak hustuta daude hizkuntzen gaineko ideologiari dago- kionez. Izan ere, garai bateko politizazioa ia desagertu egin da eta ez dute diskurtso sendorik.

3. MARKO TEORIKOA

Ondorio bezala honakoa esan daiteke: gazte euskaldun gehiago badago ere, erabilera beherantz doa, gazteek kontzientzia eta gogoeta (sozio)linguistikoa falta dute eta euren egunerokotasuna estereotipoen bidez kudeatzen dute.

Adituen ustean, soziolinguistika "hizkuntzen medikuntza [da]. Hizkuntzen egoera sozialaren diagnosirako eta tratamendurako oinarri teorikoak eta metodologia proposatzen duen zientzia".

"Hizkuntza politikaren eta hizkuntza plangintzaren inguruan espreski galdetuta, ez dute erantzunik. Oro har, herrian hizkuntzarekin lotuta antolatzen diren ekimenen berri badute, baina ez dute parte hartzen: edo bai, baina "kontsumitzaile" gisa eta, gehienbat, ekimenek jai edo ospakizun itxura hartzen badute" (Hernández, 2020:105). Gauzak honela, Hernándezek (2020) ondorioztatzen du diagnostiko, gogoeta eta diskurtso sendo baten faltan, gazteak aurreiritziez baliatzen dira egunean zehar bizi dituzten hizkuntza egoerak kudeatzeko, ahal duten moduan, eta, "orokorrean sentsazio gogaikarri batekin: jakin badakite euskara gehiago erabili beharko luketela. Gehienek, haurtzarotik entzun dute, behin eta berriro, "euskaraz egin", familian batzuk, eskolan denok" (Hernández, 2020:106).

Ondorio bezala honakoa esan daiteke: gazte euskaldun gehiago badago ere, erabilera beherantz doa, gazteek kontzientzia eta gogoeta (sozio)linguistikoa falta dute eta euren egunerokotasuna estereotipoen bidez kudeatzen dute; euskara gaur egun bazterkeriaren eta normalizazioaren "bidegurutzan" dagoela dio Amonarrizek (2019). Azken Arrue ikerketaren aurrera egiteko gakoetan honakoa planteatzen da: "D ereduaren baitan ikasleei euskarazko ingurune eraginkor bat eskaintzea (gero eta?) zailago suertatzen ari d(ela) azken urteetan. Eta beraz, zabaltzea komeni den hausnarketa bat da nolako osagarriak, indartzeak edo baliabide berriak behar diren zailtasun horiek orekatzeko" (Martinez de Luna eta Suberbiola, 2020:35).

3.2. ZER DIRA SOZIOLINGUISTIKA ETA HIZKUNTZA-EKOLOGIA?

Lan honetan zehar, behin eta berriz agertuko diren terminoak dira *sozio-linguistika* eta *hizkuntza-ekologia*. Hori dela eta, komeni da lehenbailehen horiek darabilzkgigunean zertaz ari garen zehaztea. Adituen azalpenetara joz gero, askotariko ideiak eman izan dira soziolinguistika eurentzako zer den galdetu zaienean, ez baita erraza definizio zehatzik ematea. Izan ere, Amonarrizek (2019) dioen bezala, soziolinguistikaren eta hizkuntzaren soziologiaren arteko bereizketa egin beharko litzateke; lehenak, hizkuntzalaritzaren adarretako bati egiten dio erreferentzia eta gizartearen eta hizkuntzaren elkarreraginak hizkuntzan sortzen dituen ondorioez arduratzen da, hala nola, dialektoez, erregistroez, etab.; bigarrena, aldiz, gizarteaz arduratzen da, hau da, hiztunek hizkuntzekiko dituzten jarrerez, gizarte psikologiaz, etab. Hala ere, Amonarrizek (2019) aipatu moduan, bada soziolinguistika terminoa zentzu zabalagoan ulertzeko eta erabiltzeko joera eta, horren arabera, aurretik aipatutako bi adierez gain, psikolinguistika, hizkuntzaren historia, jarrera pertsonalak, etab. ere bilduko lituzke terminoak.

Terminologia-anabasa horrek, soziolinguistika zer den galderari erantzutean adituen artean adostasunik ez dagoela pentsatzera eramán gaitzake, baina zenbait adituen hitzei erreparatuz gero, ideia komun baten inguruan dabilzala ikus daiteke: soziolinguistika tresna gisa ulertzen dute. Rodríguezek (2013), adibidez, "interbentzio eta eraldatze zientzia gisa" definitzen du; Solé i Camardonek (1991) soziolinguistika datu-multzo soila ez dela aldarrikatzen du, eskarmentua lortzeko tresna da berarentzat soziolinguistika, eta eskarmentu horrek pentsatzen eta ulertzen erakusten digula dio, horrela ekintza eraginkorak burutu ahal izateko; Arizmendi Ikastolako (2010:25) adituen ustean, soziolinguistika "hizkuntzen medikuntza [da].

3. MARKO TEORIKOA

*Hizkuntzen
biziraupenerako
faktoreek lotura dute
bioaniztasunaren
biziraupenerako
faktoreekin, eta beraz,
natura eta espeziak
babesteko hartzen
diren neurriak, balioak
eta printzipioak
baliagarriak dira ere
hizkuntzak babesteko.
Ikuspegi honek,
beraz, hizkuntza
guztien berdintasuna
du oinarri, eta
hizkuntza bakoitzaren
garapen jasangarria
lortzea helburu.*

Hizkuntzen egoera sozialaren diagnosirako eta tratamendu- rako oinarri teorikoak eta metodologia proposatzen duen zientzia”.

Behin adituek diotena azalduta, gure lana, eta batez ere material-bilketa egin dugunean, arestian azaldutako Amonarrizen (2019) ideia izan dugu buruan, hau da, terminoaren adiera hertsia eta hizkuntzaren soziologiak barne hartzen dituen arloak, baita adiera zabalagokoak ere. Izan ere, kontuan harturik materiala biltzea izan dugula helburu, edozein zantzu soziolinguistiko duen materiala bildu nahi izan dugu, beraz, ahalik eta adiera zabalena hartu dugu kontuan bilketa egiterako unean, bai bariazio linguistikoez arduratzen dena, baita hiztunen jarrez, historia sozialaz, etab. arduratzen dena.

Hizkuntza-ekologia terminoari dagokionez, aldiz, ez dago horrenbesteko zailtasunik definizioa ematerakoan. Hitza lehen aldiz Einar Haugen hizkuntzalariak erabili zuen 1971n eta hizkuntza baten eta bere ingurunearen arteko elkarrekintzaren azterketa gisa definitu zuen (UEMA, d.g.), hots, hizkuntzalaritza eta ekologia uztartzen dituen ikuspegia da. Izan ere, Kuxa Ekoguneko hizkuntza-ekologia eta hezkuntza arduradun den Itsaso Olaizolak (2014) dioen moduan, hizkuntzen biziraupenerako faktoreek lotura dute bioaniztasunaren biziraupenerako faktoreekin, eta beraz, natura eta espeziak babesteko hartzen diren neurriak, balioak eta printzipioak baliagarriak dira ere hizkuntzak babesteko. Ikuspegi honek, beraz, hizkuntza guztien berdintasuna du oinarri, eta hizkuntza bakoitzaren garapen jasangarria lortzea helburu.

Arizmendi Ikastolako (2010:26) adituen esanetan, hizkuntza-ekologia lau premisa hauetatik abiatzen da: “hizkuntza guztietako hiztunek komunikatzeko eskubide bera dute; hizkuntzak ez dira berez hiltzen, ekintza politiko konkretu baten ondorioz desagertzen dira; (...) elea-niztasuna ona ez ezik beharrezkoa ere bada; hizkuntza politika guztiak berdintasunean eta hizkuntza eskubideen gainean eraiki behar direla”.

Laburbilduz, UEMAren Hedatu hezkuntza-proiektuan defendatzen duten modura “hizkuntza ekologiak hizkuntzen arteko harremanak aztertzen ditu eta gainera desoreka egoerei erantzun nahi die. Horretarako, aniztasuna balioetsiz, hizkuntzen iraunkortasuna du helburu, eta, bide horretan, ahulenaren aldeko neurriak hartzeari beharrezko eta zilegi deritza” (UEMA, d.g.:8).

3.3. SOZIOINGUISTIKA ETA HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN LANKETA HEZKUNTZA ARAUTUAN: ADITUEK ZER DIOTE?

Euskararen erabilera behera doa azken urteotan gazteen artean, 3.1 atalean azaldu den moduan, eta egoera hori gazteen hizkuntza-jarrerak eta hizkuntza-ohiturak aldatuz eta kontzientziak astinduz soilik alda daiteke. Izan ere, datuek erakusten dute arazoa ez dela ezagutza kontua, ezagutzaren eta erabileraren artean desoreka esanguratsua baitago. Hori horrela izanik, egoera horri aurre egiteko hezkuntza arautuan soziolinguistika eta hizkuntza-ekologia lantzeak duen garrantziaren inguruan adituek esandakoak bildu dira jarraian.

3. MARKO TEORIKOA

*Ezin dugu ahaztu
"euskaldun aktiboez"
ari garenean,
"hizkuntza gutxitu
bateko hiztun
aktiboez" ari garela;
hau da, euskaldun
koherente eta gaitu
izateak gaur eta
hemen ahalegina
eskatzen du.
Eta hurrengo
belaunaldian
eskatuko du.*

Esan bezala, arazoa ez dago ezagutzen, hezkuntzaren bitartez hori, nolabait, bermatuta? baitago, beraz, Amonarrizek (2019) dioen moduan, jauzi kualitatiboa behar da, eta euskaldun aktiboak sortzeko ezinbestekoa da soziolinguistika lantzea. Eta adituek (Arizmendi Ikastola, 2010; Bueno Sáez de Albeniz, 2013; Eizmendi, komunikazio pertsonala, 2021 apirilaren 8an; Hernández, 2020; Rodriguez, 2014; Sarasua, 2013; Solé i Camardons, 1991) bat egiten dute horrekin.

Ezin dugu ahaztu *euskaldun aktiboez* ari garenean, *hizkuntza gutxitu bateko hiztun aktiboez* ari garela; hau da, "koherente eta gaitu izateak gaur eta hemen ahalegina eskatzen du. Eta hurrengo belaunaldian eskatuko du. Nahimena eskatuko du. (...) Euskaldun koherente eta kompetente izatea ez da hiritar estandar baten kondizio bera. Nahimen-tentsio bat darama." (Sarasua, 2013:211). Eta hala izanik, ezinbestekoa da nahimen hori elikatzea. Nahimen hori elikatze bideetako bat hezkuntza soziolinguistikoa dugu, ezinbestekoa ikasleek arrazoibiderako baliabideak eskura ditzaten. Izan ere, egungo Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa ezagutzeak lagunduko die bai testuingurua ulertzen, bai, euskaraz bizi nahi badute, zer eta nola egin dezaketen konturatzen (Eizmendi, komunikazio pertsonala, 2021eko apirilaren 8an).

Ildo beretik doa Hernández (2020), euskaraz egiteko kontzientzia hartu behar dela baitio. Adituak dioen moduan, badirudi euskaraz edo erdaraz eremu jakin batzuetan egitea naturala dela, eta hala ateratzen zaigunez, aldaezina dela. Baina badago zer egiterik horren aurrean, eta horregatik da hain beharrezkoa ikasleekin hausnarketa soziolinguistikoa egitea: "naturalizazioak gizarte eremu ezberdinetan gertatzen diren botere harremanak, desorekak eta parekotasunik ezak ezkututzen ditu. Inertzia naturalizazioaren eskutik doa, eta hausnarketa (soziolinguistikoa ere bai) egin ezean zaila dirudi joera horren kontra egitea" (Hernández, 2020:112).

Solé i Camardons soziolinguista katalanak ere, argi ikusi zuen hezkuntza-sisteman iraultza soziolinguistikoa baten beharra zegoela *Soziolinguística gazteentzat*² (1991) liburua idatzi zuenean, izan ere, bere hitzetan, "hizkuntzen etorkizunerako funtsezkoa da hiztunen kontzientzia soziolinguistikoa indartzea" (Solé i Camardons, 1991:22).

Bestalde, Arizmendi Ikastolak (2010) garatutako *Bazara* proiektuak, ikasleen hizkuntza-jarretan eragitea helburu duena, hori lortzeko soziolinguistika eta hizkuntza-ekologia lantzea ezinbestekotzat jotzen du.

Gainera, proiektu horrek, hots, soziolinguistika eta hizkuntza-ekologia oinarri dituenak, orain arte aipatutakoaz gain, beste onura batzuk ere badituela defendatzen dute. Batetik, elkarbizitarako lagungarria dela diote, "hizkuntza gatazkek pertsonen arteko elkarbizitza oztopen dute[lako] sarritan [eta] gatazkaren jatorria ezagutzea, soluziobideak daudela ulertzea eta jarrera positiboak aktibatzeak gatazka hauek arrazionalizatzea ahalbidetzen du[elako] (Arizmendi Ikastola, 2010:23); bestetik, "hizkuntzaren garrantziaz jabeazten gaituelako, hizkuntzen arteko errespetua sustatzen duelako eta hizkuntzen garapen sozialari buruzko eta hizkuntzen arteko elkarbizitari buruzko planteamendu unibertsal eta irekia egiten duelako" (Arizmendi Ikastola, 2010:9).

² *Sociolingüística per a joves: una perspectiva catalana* (1988) liburuaren itzulpena.

3. MARKO TEORIKOA

Rodriguezek (2014) ere ikasleekin soziolinguistika landu behar dela defendatzen du, baina bere aldarrikapen nagusia ikasleen eskura tresnak jartzearen beharra da, hizkuntzen arteko ukipenen dinamika psikologiko eta soziologikoez jabe daitezzen.

Nafarroako curriculumari dagokionez, D ereduko "Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiaren xedea da ikasleen gaitasun komunikatiboa garatzea, dituen alderdi guztietan: pragmatikoa, linguistikoa, soziolinguistikoa eta literarioa".

Bukatzeko, Rodriguezek (2014) ere ikasleekin soziolinguistika landu behar dela defendatzen du, baina bere aldarrikapen nagusia ikasleen eskura tresnak jartzearen beharra da, hizkuntzen arteko ukipenen dinamika psikologiko eta soziologikoez jabe daitezzen. Soziolinguistika domestikoaz dihardu Rodriguez (2014), eta bere ustetan, hori da ikasleekin landu beharrekoa, ez diglosia zer den, ez Fishmanen edo Txepetxen teoriak.

3.4. SOZIOLINGUISTIKA ETA HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN LANKETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN ETA BATXILERGOAN: CURRÍCULUMEK ZER DIOTE?

Jarraian, EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko curriculumak aztertuko dira, mintzagai ditugun gaien inguruan zein hizkuntza-politika ezartzen diren eta etapa bakoitzean landu beharreko edukiak zein diren jakiteko.

3.4.1. Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumak

Azpiatal honetan Heziberri 2020 Planak EAEn Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko soziolinguistikaren eta hizkuntza-ekologiaren –curriculumean Hizkuntzaren alderdi soziala deituriko atalean biltzen dira arloak– lanketaz dioena azalduko da.

Helburuei dagokienez, honako helburua ezartzen du curriculumak Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura irakasgaietan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dagokigun arloaren inguruan: "gure errealitate elebiduna eta eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutu, interpretatu eta balioestea, soziolinguistikaren oinarritzko ezagueren bidez, era horretan jarrera positiboa izateko hizkuntzen eta kulturen aniztasunarekiko, hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko, eta euskara erabiltzeko" (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2015:282). Batxilergoan, berriz, bi dira curriculumak ezarritako helburuak; batetik, "Euskal Autonomia Erkidegoko elebitasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, era horretan hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko, eta euskara erabiltzeko" (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016:118); bestetik, "eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, haiekiko errespetua eta jarrera positiboa izateko" (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016:118). Behin helburuak finkatuta, jarraian curriculumaren arabera landu beharreko edukiak aurkezten dira, mailaz maila⁴.

3.4.2. Nafarroako Foru Komunitateko curriculumak

Nafarroako curriculumari dagokionez, D ereduko "Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiaren xedea da ikasleen gaitasun komunikatiboa garatzea, dituen alderdi guztietan: pragmatikoa, linguistikoa, soziolinguistikoa eta literarioa" (Hezkuntza Departamentua, 2015a:127; Hezkuntza Departamentua, 2015b:154). Hala ere, curriculumeko irakasgai horretako edukie erreparatuz gero, ez dira aipatutako helburua lortzeko landu beharreko

⁴ Lan guztiak ondorengo helbide honetan ikus daitezke: <https://labur.eus/hezkuntzasoziolinguistikoa>

3. MARKO TEORIKOA

*Euskal kultura
tradizionalaren
dokumentuez
gain, interesgarria
da azken ikerketa
soziolinguistikoen
emaitzak aztertzea eta
gogoeta bat egitea
benetako praktiken
eta euskal hizkuntza
eta kulturarekiko
atxikimendu-
sentimenduaren
arteko bazterketaren
inguruan.*

eduki ugari ezartzen. EAEko curriculumaren kasuan bezala, helburuak finkatu ondoren, curriculumaren arabera landu beharreko edukiak aurkezten dira, mailaz maila.

Kontuan harturik Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaien soziolinguistikak duen presentzia eskasa, deigarria da Atzerriko Lehen Hizkuntza, Atzerriko Bigarren Hizkuntza eta A eredu Euskal Hizkuntza eta Literatura irakaskaietako edukietan “alderdi soziokultural eta soziolin- guistikoa: gizarte konbentzioak, kortesia arauak, ohiturak, balioak usteak eta jarrerak; ez-hitzezo hizkuntza” (Hezkuntza Departamentua, 2015a:127; Hezkuntza Departamentua, 2015b:154) eduki gisa agertzea.

Bestalde, xedapen gehigarri modura, Nafarroako euskalkien inguruko honako bi ezarpenak biltzen ditu curriculumak: “Hezkuntza Departamentuak Nafarroako eskualde jakin batzuetan mintzaten diren euskalkiak irakastea eta eskolan erabiltzea sustatuko du, ikasketak euskaraz egiten dituzten edo euskara ikasten duten ikasleendako” (Hezkuntza Departamentua, 2015a:7; Hezkuntza Departamentua, 2015b:8) eta “Hezkuntza Departamentuak irakasleek Nafarroako euskalkiak jakiteko prestakuntza bultzatuko du eta, halaber, xedapen honen 1. puntuari ezarritakoa⁵ bete dadin behar diren ikasmaterialek egitea bultzatuko du”. (Hezkuntza Departamentua, 2015a:7; Hezkuntza Departamentua 2015b:8).

3.4.3. Ipar Euskal Herriko curriculum

Ipar Euskal Herriko hezkuntzaz mintzaterakoan kontuan hartu behar da, ezinbestean, Frantziar estatuak ez dituela hezkuntza-eskumenak partekatzen eta frantsesa dela lurralde osoko hizkuntza ofizial bakarra. Beraz, ezin espero liteke EAEko Hezkuntza Sailak euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko garatutako eredu kurrikularra aurkitzea. Haatik, gaion inguruko hainbat ezarpenak biltzen ditu curriculumak.

Haatik, *Terminale* mailako –Hegoaldeko Batxilergoko 2. mailaren balio- kidea– *Humanités, littérature et philosophie*⁶ espezialitateak barne hartzen dituen programen artean, *Expression de l’amour*⁷ tematika duen programa honakoa aurki daiteke:

Kulturarekiko eta hizkuntzarekiko atxikimendua ardatzak ulertzen du nola euskal hizkuntza eta kultura bezalako elementu immaterialek maitasun adierazia ere izan dezaketen eta horren inspirazio iturri izan daitezkeen. Era berean, aukera da gizabanakoak bere hizkuntzarekiko, bere kulturarekiko duen atxikimendua aztertzeko, bertako mailatik (auzo, herri, probintzia) unibertsalerantz joateko, eta besteei irekitzea nola den posible eta desiragarria galdetzeko. Azkenik, euskal kultura tradizionalaren dokumentuez gain, interesgarria da azken ikerketa soziolinguistikoen emaitzak aztertzea eta gogoeta bat egitea benetako praktiken eta euskal hizkuntza eta kulturarekiko atxikimendu-sentimenduaren arteko bazterketaren inguruan (Ministère de l’Éducation Nationale et de la Jeunesse, 2019:10)⁸.

⁵ Aurreko aipuari egiten dio erreferentzia.

⁶ Humanitateak, literatura eta filosofia.

⁷ Maitasunaren adierazpena.

⁸ Guk euskaratua.

4. METODOLOGIA

Harremanetan ipini garen 45 pertsona/ erakundeetatik 33ren erantzun jaso dugu. ... Erantzun digutenen artean zortzik mezu edo telefono bidez helarazi dizkigute eskatutako material, baliabide eta informazioa eta beste 25ek beraiekin elkartzeko proposamena onartu dute.

Lan hau burutzeko erabili diren tresnak eta metodoak definitu aurretik, aipatzekoa da ikerketa honetan hezkuntza-eremuko edo horrekin lotura estua duten 45 pertsona zein eragileren eta 160 material eta baliabide inguruko lagina izan dugula, beraz, gure lagina nahiko zabalra izan bada ere, esan beharra dago ikerketa honek ezin isla dezakeela bere osotasunean Euskal Herrian hezkuntza arautuan soziolinguistikaren eta hezkuntza-ekologiaren lanketarako dauden material zein baliabide guztiak, ez hezkuntza-komunitateko eragile guztien iritzi eta pertzepzioak. Hori argiturik, lan honetan definitutako ikerketa galderei erantzuteko tresnak aurkeztuko dira atal honetan, baita jarraitu dugun metodologiaren inguruko ebaluazioa.

4.1. TRESNAK

Honakoak dira gure ikerketa-lana burutzeko erabili ditugun tresnak:

4.1.1. Aurkezpen-mezua eta aurkezpen-bideoa

Aurkezpen-mezu eredu batetik abiatuz, mezu ezberdinak erabili ditugu kontaktatu nahi genuen pertsona edo erakundearen arabera. Oro har, gure ikerketa-lanaren nondik norakoak eta helburuak azaldu ditugu bertan, elkarrizketa baterako proposamena luzatu zaie eta elkarrizketatik zer lortu nahiko genukeen argitu diegu. Kasuaren arabera, mezuak euskaraz edo galizieraz bidali dira. Landa lanean aurrera gindoazela, mezuan bertan elkarrizketarekin bilerak egin aurretik, gure ikerketa-lanaren nondik norakoak azaltzen dituen bideo bat txertatu dugu. Bideoan, gure ikerketa-laneko marko teorikoa eta lanaren helburuak aurkezten dira eta elkarrizketatu nahi izan ditugun pertsona edo erakundeengandik espero genuena ahalik eta modu sinpleenean azaldu dugu. Bi aurkezpen bideo egin ditugu, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz, Galiziako elkarrizketatuentzat. Bideoak Loom programaren bitartez egin dira eta bost minutuko iraupena dute. Harremanetan ipini garen 45 pertsona/erakundeetatik 33ren erantzun jaso dugu. Gainerakoek ez digute erantzun edo harremana eten dute gurekin. Erantzun digutenen artean zortzik mezu edo telefono bidez helarazi dizkigute eskatutako material, baliabide eta informazioa eta beste 25ek beraiekin elkartzeko proposamena onartu dute.

4.1.2. Elkarrizketak

Esan bezala, ikerketa-lan honetan 25 pertsona zein eragilerekin elkarrizketak burutu ditugu. Posible izan dugun kasuetan, aurrez-aurrekoak izan dira, eta gainerakoetarako Meet plataformaz baliatu gara. Bilera ia guztiak euskaraz izan dira, Galiziako irakasleekin egindakoa salbu, gaztelaniaz izan dena. Bilera guztien egitura nahiko antzekoa izan da, izan ere, aurretik presatutako gidoi bat jarraitu dugu elkarrizketetan. Bileren iraupenari dagokionez, 30 minutu eta ordubete tartekoak izan dira eta aurrez aurre egin ditugunetan zertxobait gehiago luzatu gara. Egin nahi genituen elkarrizketen bolumen handiagatik honako hauek ikerketa-laneko

4. METODOLOGIA

Ikerketa-lan honetan 25 pertsona zein eragilerekin elkarrizketak burutu ditugu. Posible izan dugun kasuetan, aurrez-aurrekoak izan dira, eta gainerakoetarako "Meet" plataformaz baliatu gara.

Heziberri 2020 Planak EAEn Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumean "Hizkuntzaren alderdi soziala" deituriko atalean aipatzen diren edukiak hartu ditugu erreferentzia bezala.

bi ikertzaileen artean banatu behar izan ditugu; beraz, hasierako bost bilerak binaka egin bagenituen ere, ondorengo 20 bilerak bakarka egin genituen, ikertzaile batek 11 bilera eta besteak bederatziz.

Gure ikerketa-lanerako harremanetan egon garen pertsona eta eragileen zerrenda honako hau da:

1. Berritzegunea + Ulibarri programa: Joseba Ibarretxe
2. Ebete hizkuntza-zerbitzuak: Iñaki Eizmendi
3. Euskaltzaleen Topagunea: Johana Olabarria
4. Seaska eta Erabil kolektiboa: Xan Aire
5. Ikastolen Elkarte: Inma Muñoa
6. Kike Amonarriz
7. Txerra Rodriguez
8. MintzaLasai elkarte: Irati Fernandez
9. AEKren AHIZE aholkularitza: Mailen Begiristain
10. Bartzelonako EOI Hizkuntza Eskola Ofiziala: Aduna Olaizola eta Eñaut Arretxe Agirre
11. Bartzelonako Euskal Etxea: Josean Odiaga
12. Galiziako irakasleak: Olga Abeixon eta Nel Vidal
13. Bernat Etxepare Lizeoa (Baiona): Mathilde Echarte

4.1.3. Tailerren deskribapen-fitxak

Elkarrizketatutako eragile batzuen kasuan eskaini diguten materialak "tailer" formatua dauka. Tailerrean bertan erabiltzen den materiala gurekin partekatu ezin dutenez tailerren nondik norakoak biltzeko, aztertzeko eta sailkatzeko deskribapen fitxa batzuk erabili ditugu. Fitxa tailerrak eskaintzen dituzten erakundeei bidali dizkiegu zuzenean eta beraiek bete dituzte fitxak. Fitxa txantiloia *Word* programarekin egin da eta orrialde bateko luzera dauka. Bertan taula bat aurkezten da informazio atal ezberdinekin, besteak beste: tailerraren izena, kontak-tua, denboralizazioa eta helburuak. Hala ere, azkenean tailerren fitxa hauek jarraian azalduko ditugun material eta baliabideen deskribapen fitxekin ordezkatu ditugu.

4.1.4. Materialen eta baliabideen deskribapen-fitxak

Elkarrizketa eta topaketei esker bildutako material eta baliabideak behin aztertu ondoren bi irizpideren arabera sailkatu ditugu; formatua eta modalitatea. Sailkapen horretan material eta baliabide bakoitza zertan datzan azaltzeko deskribapen fitxak sortu ditugu. Baliabide gehien kasuan ez dugu deskribapen-fitxa bat sortzeko beharrik ikusi, izan ere, materialak ez bezala baliabideen erabilera eta helburua intuitiboagoa da. Hala ere, baliabideen kasuetan sailkapenean aipatzerako momentuan, aipamena ahalik eta osatuena izan dadin saiatu gara. Materialak eta baliabideak sailkatzeko lehen irizpidea formatuarena izan da, beraz, formatu bakoitzerako deskribapen-fitxa txantilo⁹ bat sortu dugu (guztira 21 deskribapen-fitxa txantilo) materiala deskribatzerako garaian esanguratsuak diren informazio atalekin, besteak

⁹ Kontuan harturik materialak formatu berekoak izanda ere nahiko informazio ezberdina lortu dugula bakoitzarengandik, txantiloietan ere aldaketak egiteko beharra ikusi dugu.

4. METODOLOGIA

beste: izenburua, helburuak, egilea eta eranskinak. Txantiloiak Word programarekin egin dira eta orrialde bateko luzera dute. Hizkuntzari dagokionez, guztiak euskaraz daude.

4.1.5. Materialen eta baliabideen edukiak zehazteko taula

Bildutako materialen eta baliabideen edukiak zehazteko taula bat sortu dugu word programarekin. Taula honetan Heziberri 2020 Planak EAEn Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumean "Hizkuntzaren alderdi soziala" deituriko atalean aipatzen diren edukiak hartu ditugu erreferentzia bezala. Ikerketa-lanean aztertu ditugun hiru curriculumetatik EAEkoa hartu dugu erreferentzia bezala, izan ere, *Hizkuntzaren alderdi sozialari* dagokionez osatuen zegoen curriculum iruditu zaigu. Hala ere, eduki horiek Obradoiro-Santillana argitaletxeko *Lingua galega e literatura*. 3º da ESO liburuko gaitegian "*Lingua e sociedade*" deituriko atalean aipatzen diren edukiak osatu ditugu. Zenbait kasutan taula elkarrizketatutako pertsona eta eragileen laguntzarekin bete dugu eta beste kasu batzuetan gure kabuz.

4.2. METODOLOGIAREN EBALUAZIOA

Erabilitako metodologia aproposa izan da gure helburuak betetzeko. Aurkezpen mezuak eta bideoak asko lagundu digute kontaktatu nahi genituen pertsonekin eta erakundeekin ahalik eta modu azkarrean eta argian harremanetan ipintzen. Elkarrizketatuek esan digute aurkezpen bideoa bereziki eraginkorra izan dela elkarrizketa egin aurretik gure eskaeraren inguruan hobeto kokatzeko eta gurekin konfiantza lortzeko. Elkarrizketa eta topaketen kasuan, meet programa bidez bilerak online egiteak asko erraztu digu landa lana eta Euskal Herritik kanpoko pertsona eta eragileekin elkartu ahal izan gara. Hala ere kasu batzuetan, elkarrizketatu nahi genituen pertsona edo erakundeek ez digute erantzun edo gure ikerketalanean parte-hartzeko denborarik ez zutela esan digute. Tailerren deskribapen fitxak berriz oso erabilgarriak izan zaizkigu tailerrak bildu, aztertu eta sailkatzeko baina beranduegi konaturatu gara hauen beharraz. Amaitzeko, materialen deskribapen fitxen eta taularen beharraz ere beranduegi ohartu gara eta honek materialaren azterketa eta sailkapena atzeratu dizkigu.

Lehenik,
soziolinguistika eta
hizkuntza- ekologiaren
lanketarako
Euskal Herrian
dauden material
eta baliabideen
bilketa, azterketa,
eta sailkapena
aurkeztuko dira;
bigarrenik, ikerketatik
eta elkarrizketetatik
ateratako
ikastetxeetako
errealitateari buruzko
hainbat ideia bildu
ditugu; hirugarrenik,
ikerketa-lanean
topatu dugun eredu
bat dakarkigu.

5. EMAITZAK

Bildutako material eta baliabide guztiak zerrendatuko dira, modalitatearen arabera sailkatuz: kanpo-eragileek ikasleekin lantzeko materiala/ baliabideak, kanpo-eragileek irakasleekin lantzeko materiala/ baliabideak, irakasleek ikasleekin lantzeko materiala/ baliabideak eta irakasleen auto-formakuntzarako materiala/ baliabideak.

Jarraian, lan honetatik ateratako emaitzak dakarzkigu. Lehenik, soziolin- guistika eta hizkun- tza-ekologiaren lanketarako Euskal Herrian dauden material eta baliabideen bilketa, azter- keta, eta sailkapena aurkeztuko dira (5.1. atalean); bigarrenik, ikerketatik eta elkarrizketetatik ateratako ikastetxeetako errealitateari buruzko hainbat ideia bildu ditugu (5.2. ata- lean); hi- rugarrenik, ikerketa-lanean topatu dugun eredu bat dakarkigu, Galizian gaion inguruko lan- ketari buruzko hainbat ideia (5.3. atalean).

5.1. SOZIOLINGUISTIKA ETA HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN LANKETARAKO EUSKAL HERRIAN DAUDEN MATERIAL ETA BALIABIDEEN BILKETA, AZTERKETA ETA SAIL- KAPENA

Azpiatal honetan, gure ikerketa-lanean bildutako materiala aurkezten da. Behin materiala aztertuta¹⁰, formatuaren arabera (5.1.1 atala) eta modalitatearen arabera (5.1.2) sailkatu da lehenik, eta ondoren material edo baliabide bakoitzak jorratzen dituen edukiak zehaztuko dira (5.1.3. atala).

5.1.1. Formatuaren arabeko sailkapena

Jarraian, bildutako material eta baliabide guztiak zerrendatuko dira, formatuaren arabera sailkatuz. Honakoak dira formatuaren arabeko sailkapena egiteko hautatu diren katego- riak: testuliburu-atalak, testuliburuak, tailerrak, liburuak, irakasle edota ikastetxe ja- kinen material eta jarduera esanguratsuak, katalogoak, unitate didaktikoak, aurkezpenak, lanketarako proposamen sortak, jarduera sortak, sareko baliabideak eta jarduerak, aurkez- penak, sareko estatistikak eta atlasak online, blog-ak, jarduerak eta ekimen publikoak, inte- resguneak, eskuorriak eta dekalogoak eta hitzaldi esanguratsuak¹¹.

5.1.2. Modalitatearen arabeko sailkapena

Jarraian, bildutako material eta baliabide guztiak zerrendatuko dira, modalitatearen ara- bera sailkatuz. Honakoak dira modalitatearen ara- berako sailkapena egiteko hautatu diren kategoriak: kanpo-eragileek ikasleekin lantzeko materiala/baliabideak, kanpo-eragileek irakaslee- kin lantzeko materiala/baliabideak, irakasleek ikasleekin lantzeko materiala/ba- liabideak eta irakasleen auto-formakuntzarako materiala/ baliabideak.

¹⁰ 5.1.4. metodologiako atalean azaldu moduan, material eta baliabideen deskribapen fitxetan bildu da horien inguruko informazioa, beharrezkoa ikusi den kasuetan (gai- nerakoek, baliabideak gehienbat, ez dute fitxarik eta deskribapena baliabideak izen- datzerakoan eman da). Deskribapen fitxak ikusteko material/baliabideen izenetan sakatu.

¹¹ Formatuaren eta modalitatearen sailkapenaren inguruko informazioa aurkitu daiteke ondorengo helbidean: <https://labur.eus/VabTt>

5. EMAITZAK



5.1.3. Bildutako material eta baliabideek jorratzen dituzten edukien zehaztapena

Azpiatal honetan, bildutako material eta baliabide bakoitzak jorratzen dituen edukiak¹² taula baten bidez zehaztuko dira¹³.

5.2. SOZIOLOGIA ETA HEZKUNTZA-EKOLOGIAREN LANKETA EUSKAL HERRI-KO DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN ETA BATXI- LERGOAN: IKASTE-TXEETAKO ERREALITATEA

Lanketa horri esker, ikasleak euren errealitate soziolinguistikoaz jabetzen dira, hots, kontzientzia linguistikoa garatzen dute, eta hizkuntzen bizitza eta garapena baldintzatzen duten faktoreak eta haien arteko harremana ezagutzeko kritikoki interpretatzen dute errealitate soziolinguistikoa.

Lan honetako helburu nagusia Euskal Herrian soziolinguistika eta hizkuntza-ekologia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan lantzeko dauden material eta baliabideak biltzea izan bada ere, zeregin horretan geundela, egoera esanguratsu batekin egin dugu topo. 4.3. atalean aipatu bezala, hezkuntza arautu zein ez-arautuko aditu askok soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren lanketaren garrantzia defendatzen dute. Lanketa horri esker, ikasleak euren errealitate soziolinguistikoaz jabetzen dira, hots, kontzientzia linguistikoa garatzen dute, eta hizkuntzen bizitza eta garapena baldintzatzen duten faktoreak eta haien arteko harremana ezagutzeko kritikoki interpretatzen dute errealitate soziolinguistikoa, eguneroko bizimoduan dituzten hizkuntza ohiturak eta horien arazoak errazago identifikatzen dituzte, euskararen erabileraren eta normalizazioaren aldeko konpromiso aktiboa errazago garatzen dute eta beste hizkuntzekiko errespetuzko eta balioespen-jarrerak errazago garatzen dituzte. Gainera, 4.4. atalean EAEko, Nafarroako zein Ipar Euskal Herriko curriculumetan ideia eta lanketa hauek defendatzeko eta praktikara eramateko zenbait ahalegin badirela ikusi dugu. Hala ere, gure ikerketa-laneko landa lanean egin ditugun elkarrizketetan ikusi dugu ikastetxeetako errealitatea adituek defendatu eta curriculumak proposatzen duen horrekin ez datorrela guztiz bat.

Alde batetik, Berritzeguneko Joseba Ibarretxerekin elkarrizketa egin genuenean Kike Amonarrizek 2019an Eskola Hitzun Bila: XXIII. jardunaldian eman zuen hitzaldian aurkeztutako ikerketa-lan baten berri eman zigun eta Amonarrizekin bilera egin genuenean ikerketa horren emaitza eta ondorio nagusien inguruan jardun genuen. Ikerketak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 27 ikastetxetan soziolinguistikaren lanketaren inguruko errealitatea eta iritziak zeintzuk ziren ikertu zuen. Horretarako, 27 ikastetxeetako euskara irakasle, euskara mintegi-buru, normalizazio-batzordeko kide eta ikasketa-buruak elkarrizketatu zituen. Ikerketaren arabera, inkestan parte hartutako gehienek aipatzen dute Euskara eta Literatura irakasgaien soziolinguistika gutxi lantzen dela eta lantzekotan ikasmaita zehatz batzuetan soilik egiten dela, DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 1. mailan. Soziolinguistikaren lanketari dagokionez, irakasle gehienak jakitun dira soziolinguistikaren edukien presentzia irakaskuntzan eskasa edo oso eskasa dela eta ados daude gehiago landu behar dela. Lanketa egiten den kasuetan euskararen historia eta gaur egungo egoera soziolinguistikoa dira gehien lantzen dituzten edukiak. Hala ere, landu beharreko edukien inguruan galdetu zaienean ia guztiak ados daude ikerketan proposatutako eduki guztiak landu beharko lirakeela: euskararen historia, gaur

¹² Lan guztiak ikus daitezke ondorengo helbidean ikus daitezke: <https://labur.eus/3ftzs>.

¹³ Tauletako zenbakiak bat datoz formatuaren araberrako sailkapeneko zenbakiekin, irakurleari bilaketa errazteko.

5. EMAITZAK

la guztiak ados daude ikerketan proposatutako eduki guztiak landu beharko liratekeela: euskararen historia, gaur egungo egoera soziolinguistikoa, herriko edo eskualdeko egoera soziolinguistikoa, oinarrizko ezagutza soziolinguistikoa, hizkuntza- portaerak, hizkuntza- ekologia edota eleaniztasuna, estandarra eta euskalkien erabilera eta hizkuntza- egokitasuna.

Zenbait irakasleren ustetan soziolinguistika eta hizkuntza- ekologiaren inguruko lanketak euren kabuz egitea "zaila" da.

egungo egoera soziolinguistikoa, herriko edo eskualdeko egoera soziolinguistikoa, oinarrizko ezagutza soziolinguistikoa, hizkuntza-portaerak, hizkuntza-ekologia edota eleaniztasuna, estandarra eta euskalkien erabilera eta hizkuntza-egokitasuna. Materialari dagokionez, zenbait ikastetxetan Azkue Fundazioko baliabideak, Euskaraldiko materiala edo Xamarren liburuak erabiltzen dituztela aitortu badute ere, ikastetxe gehienetan *Tribuaren Berbak* unitatea didaktikoak eta euskarako testuliburuak dira soziolinguistika lantzeko gehien erabiltzen direnak. Amaitzeko, elkarrizketatuen erdiak uste du material gehiago behar dela, material hori mailakatu egin behar dela eta transposizio didaktikoa modu dibertigarrian eta maneigarrian lan egiteko helburuarekin egin behar dela. Beste erdiaren ustez, material nahikoa dago baino arazoa irakasleen denbora falta da. Inkestan parte hartu dutenen artean laurdenak ere aipatu du irakasleen formazioa eza nabarmena dela, normalizazio-mintegiekin ez dela nahikoa eta akats handia dela pentsatzea soziolinguistikaren gaia lantzea soilik euskarako irakaslearen esku dagoela.

Bestetik, UEMAk hezkuntza-proiektuen arduradunarekin elkartu ginenean ere EAEko ikastetxe gehienetan soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren lanketa eskasaren inguruan zuten kezka agertu ziguten. Beraien *Hedatu* hezkuntza-proiektuan aipatzen den bezala, ikastetxetan soziolinguistikari dagozkion gaiek ez dute pisu askorik izan tradizionalki eta gaur egun, irakasteko moduaren eta ikastetxearen arabera alde handiak daude soziolinguistika lantzerakoan. Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa zein euskararen arnasguneen kontzeptua oraindik ez daude barneratuta hezkuntzaren eremuan eta irakasle guztiek orokorrean, eta hizkuntzeta-koek bereziki, soziolinguistika esparruko formazio-beharra daukate. Ondorioz, ikasleek euskararen normalizazio-prozesua ez dute modu sakonean barneratuta: galera prozesua, berreskuratzeko beharra, hizkuntza-hautuak kontzienteki egin beharra.

Elkarrizketatu ditugun pertsona eta erakunde gehienek Amonarrizek eta UEMAk egin duten diagnostikoaren ildo bereko iritzi eta pertzepzioak dituzte:

- Elkarrizketatutako irakasleek onartzen dute euskal hezkuntza-sisteman ez dela ohikoa soziolinguistika eta hizkuntza-ekologia behar bezala lantzea eta lanketa honen aldeko apustua egiten duten ikastetxe edo irakasleek zailtasunak dituztela materiala eta baliabideak topatzeko.
- Zenbait irakasleren ustetan soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren inguruko lanketak euren kabuz egitea "zaila" da. Pertzepzio horri lotuta, Seaskako koordinatzaile eta Erabili Kolektiboko partaide den Xan Aireren hitzak ekarriko nahi ditugu gurera. Aireren ustez, Iparraldean soziolinguistika lantzea erronka handia da. Seaskako azken bileretan gai hauek beraien programazioetan txertatzearen beharraz eztabaidatu dute. Hala ere, irakasle askorentzat eduki hauek berritzaileak eta intimoak dira, jarrerak, ohiturak eta motibazioen inguruan hitz egitea esan nahi duelako. Gainera, Iparraldeko datu soziolinguistikoen inguruan hitz egiteak, hain txarrak izanik, ikasleak desmotibatuko dituztenaren kezka dute irakasle askok. Egoera horri gehitu behar zaio hutsunea betetzeko mintegiak edo dina- mikak eskaintzen dituzten kanpo-eragileak ikastoletara gonbidatzeko ohitura-rik ez dagoela.

5. EMAITZAK

Aholkularitza-zerbitzuek, aisialdi-taldeek zein bestelako eragileek ikastetxeetan euskararen normalizaziora bideratutako mintegien eskaerak ohikoak direla diote.

Bat egiten dugu Rodriguezekin (2013) soziolinguistika interbentzio eta eraldatze zientzia gisa" ulertu behar dela dionean, eta horretarako ezinbestekoa da ikasleei tresnak ematea, ikasleek arrazoibidea gara dezaten baliabideak emateaz gain.

- Euskararen Irakaskuntzarako Baliabideen Zerbitzuak (EIBZ) oso material gutxi eskaintzen du soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren lanketarako.
- Hezkuntza Saileko IRALE programan ez da gaur egun –eta guk dakigula inoiz ez– inolako formaziorik eskaini irakasleak soziolinguistikaren eta hizkuntza-ekologiaren inguruan formatzeko.
- Aholkularitza-zerbitzuek, aisialdi-taldeek zein bestelako eragileek (Ekoguneak eta Euskaltzaleen Topaguneak, adibidez) ikastetxeetan euskararen normalizaziora bideratutako mintegien eskaerak ohikoak direla diote.

5.3. BESTELAKO EREDU INSPIRAGARRIAK: GALIZIAKO EREDUA

Landa-laneko elkarriketarako batean Txerra Rodriguezek Galizian hezkuntza arautuan galizierako bi irakasleekin kontaktuan ipintzeko proposamena luzatu digu. Bilera honen helburua, soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren gaiak Euskal Herritik kanpo lantzen diren edo ez jakitea eta lantzekotan zein material eta baliabideekin egiten den ikertzea da. Esan bezala, Galiziako Nel Vidal eta Olga Obeixon bigarren hezkuntzako irakasleekin bildu gara. Bileran Galizian galizierako ikasgaien curriculumak eskatzen duena eztabaidatu dugu lehenik. DBHko eta batxilergoko galizierako curriculumean honako hau aipatzen da sarreran: "Hizkuntzen helburua ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzea da, alderdi guztietan ulertuta: pragmatikoa, linguistikoa, soziolinguistikoa eta literarioa" (Xunta de Galicia, d.g.b:98; Xunta de Galicia, d.g.a:290). Gainera curriculumean galiziera ikasgaia bost bloke ezberdinetan banatzen da eta horietako bat *Lingua e sociedade* izenekoa da. Bloke hau honela definitzen da DBHko zein batxilergoko curriculumean: "4. blokea: "Hizkuntza eta gizartea" izenekoan, ikasleek eleaniztasuna egoera ohiko eta aberasgarri gisa ezagutu, azaldu eta baloratu behar dute. Era berean, hizkuntzekiko aurreiritziak identifikatu eta gainditu behar direla azpimarratzen da, eta termino soziolinguistiko zehatzak ezagutzea eta erabiltzea ezinbestekoa dela". Curriculumaren ondoren galizierako ikasliburuen inguruan eztabaidatu dugu. Vidal eta Obeixonen ustez ezagutzen dituzten galizierako liburu guztiek dute unitate bakoitzean bakoitzean *Lingua e sociedade* atala. Gainera, ikasliburuez gain erabili ohi diren beste material eta baliabideak proposatzerako garaian ez dute zalantzarik izan. Bi irakasleek material eta baliabide antzekoak aipatu dituzte eta honako hauek hezkuntza formalean nahiko zabaldua daudela aipatu dute. Amaitzeko, Euskal Herriaren kasuan aholkularitza eta aisialdi talde ezberdinek ikastetxeetan hizkuntzaren erabileran eta jarreretan eragiteko eskaintzen dituzten tailerren inguruan eztabaidatu dugu. Galizian antzeko panorama dutela aitortu dute, hala ere, tailer hauen eskaintza askoz murriztuagoa omen da, beraiek adibidez bakarra ezagutzen dute. Gauzak honela, elkarriketa honetatik atera ditugun material eta baliabideak jaso ditugu.

6. ONDORIOAK

Kanpo-eragileek hezkuntza-komunitatean duten presentziak argi uzten du, euskararen erabilera sustatzeko, hizkuntza-jarreretan eragiteko eta hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera positiboak sustatzeko ikastetxeetan egiten den ahalegina.

Atal honetan gure lana burutu dugun bitartean ateratako ondorio nagusiak azalduko ditugu. Baina lehenik eta behin, 4.2. atalean *soziolinguistika* terminoaz aipatutakoak eta 4.3. atalean azalduko adituen iritzia gogoratu nahi ditugu. Lan honen muina den material-bilketa egiterako orduan, terminoaren adiera ahalik eta zabalena izan dugu buruan, Amonarrizek (2019) aipatu joera horri eutsiz. Bilketa ikuspegi horrekin egiteak aukera eman digu ikusi ahal izateko material eta baliabide ugari dagoela eta askotariko helburuak izan ditzakeela material horrek, baita askotariko gaiak jorratu. Hala ere, guk bat egiten dugu Rodriguezekin (2013) soziolinguistika "interbentzio eta eraldatze zientzia gisa" ulertu behar dela dionean, eta horretarako ezinbestekoa da ikasleei tresnak ematea, ikasleek arrazoibidea gara dezaten baliabideak emateaz gain; hau da, Rodriguezek (2014) aipatutako soziolinguistika domestikoaren beharra aldarrikatzen dugu guk.

Lan honetatik ateratako ondorioei dagokienez, lehenik, EAEko curriculumaren eta testuliburuaren artean dagoen desoreka dugu. 4.4. atalean azaldu moduan, *Heziberri 2020 Planak* hizkuntzaren alderdi sozialaren lanketarako ezarritako helburua ezagutza hutsetik haratago doa, ikasleen hizkuntza-jarreretan eragitea euskararen erabilera sustatzea ere lortu behar dela ezartzen baitu, eta horiek lortzeko eduki-zerrenda oso garatua dela esan daiteke. Hori jakinik, testuliburuak biltzen dituzten edukiak aztertzerakoan, oro har, ez dago alerik curriculumak ezarritako eduki guztiak lantzen dituenik; hizkuntza-ekologiaren gaia, adibidez, ez da kasik agertzen. Testuliburuaren artean aldeak daude edukiei dagokienez; badira soziolinguistikaren inguruko lanketa nahiko sakona egiten dutenak eta *Hizkuntza eta gizartea*, *Hizkuntza gizartean*, *Euskara gizartean*, *Munduko hizkuntzak* eta antzeko atalak dituztenak, baina badira eranskinetan soilik edo Kultura atalean soziolinguistikari ez dagozkion gaiekin batera gaiaren inguruko edukiak biltzen dituztenak, soziolinguistika lantzea oinarritzat joko ez balute bezala. Kontuan harturik irakasle askok curriculumeko edukiei baino, testuliburuaren edukiei erreparatzen dietela, arazo bat izan daiteke hori.

Bigarrenik, kanpo-eragileek hezkuntza-komunitatean duten presentziak argi uzten du, baitetik, euskararen erabilera sustatzeko, hizkuntza-jarreretan eragiteko eta hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera positiboak sustatzeko ikastetxeetan egiten den ahalegina. Lan honekin hasi eta aholkularitza-talde askok eskaintzen dituzten saioez, tailerrez eta formakuntzez ohar-tzean, hezkuntzan zegoen hutsune batekin, hau da, irakasleen formakuntza faltarekin, lotu genuen, ikasleekin lanketa hori irakasleak egin behar duela interpretatu baikenuen. 6.2. atalean hutsune edo gabezia hori erreala dela ikusi badugu ere, ulertu dugu ezinbestekoa dela kanpo-eragileen lana ere, "freskotasuna" eramaten baitute teknikariek geletara; beti ere, irakasleek egiten duten lanketa osatzeko bada eta ez lan hori ordezkatzeko. Bestalde, eta kontuan izanda kanpo-eragileen artean eta irakasleen artean lankidetzat falta sumatu dugula, soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren lanketa ahalik eta eraginkorren izan dadin hezkuntza-komunitateko eragileen arteko saretzea ezinbestekoa da.

6. ONDORIOAK

Identifikatutako hutsunerik nabarmenena materialean baino, irakasleen formakuntzan dagoela jakin arren, horrelako bilketek irakasleen lana erraztu dezaketela uste dugu.

Soziolinguisti- karen lanketari dagokionez, nabaria da Euskal Herriko hiru eremu politikoetako curriculumen artean dauden aldeak, bai edukietan, bai helburuetan ere.

Hirugarrenik, aipatu irakasleen formakuntzan dagoen hutsunea berrartuko dugu. Lan honekin hastean genuen asmoa ikasleen hezkuntzarako baliagarri izan zitezkeen materialak eta baliabideak biltzea izan zen, baina behin elkarrizketekin hasi eta hutsune hori sumaturik, irakasleen formakuntzarako eta ahalduntzerako materiala ere biltzea erabaki genuen. Hori kontuan harturik eta Amonarrizen (2019) ikerketan ikusi moduan materiala oso sakabanatua dela aintzat hartuz, uste dugu gure lanak ekarpen bat egin diezaiokeela euskal hezkuntza-sistemari. Identifikatutako hutsunerik nabarmenena materialean baino, irakasleen formakuntzan dagoela jakin arren, horrelako bilketek irakasleen lana erraztu dezaketela uste dugu. Gainera, bildu garen pertsona eta erakunde guztiengandik zorion mezuak jaso ditugu, eta denek azpimarratu dute horrelako lanen garrantzia. Hala ere, jakitun gara lan hau abiapuntua besterik ez dela, eta etorkizunean hainbat lan-ildo jarraitu beharko lirakeela lan hau osatzeko. Lehenik, bilketa honek ez du jasotzen soziolinguistika eta hizkuntza-ekologia lantzeko dagoen material guztia, eta, beraz, bilketa horrekin jarraitzea komeniko litzateke. Bigarrenik, etengabe material berria sortzen dela ikusteko aukera izan dugu; horregatik, horrelako bilketa bat euskarri kolaboratibo batean eskegitzea aproposa izango litzateke, material, baliabide, formazio, etab. sortzen duten pertsona edo erakundeek osatzen joan daitezten. Hirugarrenik, eta kontuan hartuta lan honen zeharkako helburu bihurtu dela irakasleei erraztasunak eskaintzea, irakasleen beharrak, materialari dagokionez, gertuagotik ezagutu beharko lirakeela uste dugu. Izan ere, gurekin bildu diren irakasleak gurekin bildu dira, hain zuzen ere, ahaldunduta sentitzen direlako gaiok jorratzerakoan eta euren praktika esanguratsuak gurekin partekatzeko. Beraz, ezin daiteke esan irakasle horiek islatzen dutenik Amonarrizek (2019) eta UEMAKo teknikariek (d.g.) identifikatutako formazio eza. Bestalde, irakasleek soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren inguruko lanketa egiterakoan izan ditzaketen zailtasunen artean, alde batetik, “euskaltzale helduen” gai direnaren ustea legoke, eta bestetik, gaiok mikrotik lantzeak eta beraz, ohiturak, jarrerak edota ideologiak bezalako gai pertsonalak jorratzeko beldurra legoke. Zailtasun horiek ohikoagoak izan daitezke gune erdaldunetan, euskaraz aritzea “arau soziala” ez den tokietan eta, bereziki, euskara ofiziala ez den guneetan. Gauzak horrela, irakasleen formazioa eta ahalduntzea aipatzen ditugunean, ezinbestekotzat jotzen dugu irakasleek “babes-guneak” (“safe spaces”) sor eta berma ditzatela hizkuntzaren inguruan, hizkuntzari buruz eta hizkuntzaren gainean segurtasunez aritu ahal izateko.

“Miren Guilló antropologoak (...) horrela definitzen ditu espazio horiek (Guilló, 2020:134): Feminismoan bereziki, espazio seguru izendatzeak talde horretan egoteko modua inplikatzeko du: gainontzekoen iritziak ez epaitzea; errespetuz entzutea; elkar ahalduntzeko espazioak sortzea; funtsean, lasaitasunez, aska- tasunez eta arduraz jokatzeko litzateke” (Hernández, 2020:106).

Laugarrenik, eta bukatzeko, Euskal Herriko egoera antzekoa duen beste lurralde bateko eredu ezagutzeko aukera izan dugu, 6.3. atalean azaldutako Galiziako eredu. Aztertutako lagina zabala ez bada ere, bertako curriculumak biltzen dituen edukiak testuliburuetan biltzen direla ikusi ahal izan dugu. Arestian aipatu bezala, alderdi hori garrantzitsua da, irakasleak soilik testuliburu etako edukiak landuko baditu. Baina horrez gain, Galiziako irakasleek barneratuta dute gai garrantzitsua eta oinarrizkoa dela soziolinguistika eta testuliburuak aparteko materialekin osatzen dituzte. Ikusten dugu, beraz, ez oso urrun badirela gure erronka berdinak dituzten beste komunitate batzuk, eta eredu horiek inspiragarriak gerta dakizkigukeela.

7. AZKEN GOGOETAK

Kanpo-eragileek hezkuntza-komunitatean duten presentziak argi uzten du, euskararen erabilera sustatzeko, hizkuntza-jarreretan eragiteko eta hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera positiboak sustatzeko ikastetxeetan egiten den ahalegina.

Gure lanaren azken atal honetan ondorioetatik harago joan nahi izan dugu. Lan hau Euskal Herriko hezkuntza-komunitaterako ekarpena bat izango delakoan gaude eta, beraz, etorkizuneko urrats izan behar duten zenbait gogoeta eta proposamenekin amaitu nahi genuke.

- Soziolinguistikaren lanketari dagokionez, nabaria da Euskal Herriko hiru eremu politikoetako curriculumen artean dauden aldeak, bai edukietan, bai helburuetan ere. Espero izatekoa da Ipar Euskal Herriko curriculumak helburu zehatzak ez izatea euskararen erabilera sustatzea edota ikasleek euren errealtate soziolinguistikoaz jabe daitezen eduki zerrenda luzerik ez izatea, kontua harturik Frantziar estatuak ez dituela hezkuntza eskumenak partekatzen eta frantsesa dela lurralde osoko hizkuntza ofizial bakarra; horregatik, Frantzian hizkuntza gutxituen legea, *Molac* lege gisa ezaguna, aurrera ateratzeko Ipar Euskal Herrian egiten ari diren ahaleginak berebiziko garrantzia du. Baina deigarria da Nafarroako Foru Erkidegoko curriculumeko eskastasuna dagokigun gaian, aintzat hartzen badugu euskara hizkuntza ofiziala dela hainbat eremutan. Horregatik, eremu euskaldunei egokitutako curriculumak sortzeko ahaleginak egin beharko lirateke, euskal hiztun osoak hezteko helburu lukeena. Osatze-lan horretan, EAEko curriculumean oinarritzeaz gain, Euskal Herriko errealtate soziolinguistiko antzekoak dituzten gertuko komunitateko curriculumak ere har daitezke eredutzat.
- EAEko curriculumak argi uzten du *Hizkuntzaren alderdi sozialaren* lanketaren helburua ezagutzaz harago doala, euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntza-aniztasunarekiko jarrerak positiboak garatzea bezalako ideiak helburutzat jotzen baititu, eta ezarritako edukiak bat datoz helburu horiekin. Baina jakina da ikasleek ikasketak amaitzean ez dutela euren arazoibidea garatuta, eta datuetan ikus daitekeen moduan, euskararen erabilera ere ez dela bermatzen. Beraz, ahalegin handiagoa egin beharko litzateke irakasleek euren testuliburuari jarraitu baino, curriculumari ere jarrai diezaioten.
- Kontuan harturik soziolinguistika eta hezkuntza-ekologia, ezagutza-arlo soilak baino, esku-hartzerako zientzia gisa har daitezkeela eta pertsonari bere egunerokoa eta hautuetan eragiten dioten gaiak lantzen direla, ezinbestekoa da irakasleek horiek lantzeko bereziki forma daitezen. EAEko Hezkuntza Sailak eskaintzen duen IRALE programan irakasleen ahalduntze soziolinguistiko ere landu beharko litzateke; izan ere, ahalduntze hori gabe ezer gutxi balio dezake curriculum hain garatua izateak. Bestalde, kanpo-eragileek ikasleei zuzendutako materiala eta formakuntzak sortzeko duten gaitasuna ikusirik, eskaintza hori irakasleei gehiago zabaltzea aurrerapauso esanguratsua litzateke.

7. AZKEN GOGOETAK

Kontuan harturik soziolinguistika eta hezkuntza-ekologia, ezagutza-arlo soilak baino, esku-hartzerako zientzia gisa har daitezkeela eta pertsonari bere egunerokoan eta hautuetan eragiten dioten gaiak lantzen direla, ezinbestekoa da irakasleek horiek lantzeko bereziki forma daitezen.

- Aurretik aipatu bezala, soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren lanketan pertsonari bere egunerokoan eta hautuetan eragiten dioten gaiak lantzen direla jakinda, gaiok lantzeko "babes-guneak" bermatzea ezinbestekoa da. Beraz, gune hauen garrantziaren inguruko kontzientzia piztu beharko litzateke irakasleen artean, baita horiek sortzeko ahaldundu.
- Ondorioetan aipatutako kanpo-eragileen artean eta irakasleen artean dagoen lankidetzaz faltari erantzuteko, soziolinguistika hezkuntza arautuan lantzearen alde egiten dutenen arteko indarrak batu egin beharko lirateke. Soziolinguistikak hezkuntzan beharko lukeen tokia lortzeko ahaleginean parte hartu nahi duten irakasle eta kanpo-eragileen arteko sarea sortu beharra dago, batzuen lana besteen ekarpenekin osatu ahal izateko.
- Lan honetako material-bilketa, -azterketa eta-sailkapena abiapuntua besterik ez dira. Jarraipena behar luke honek, era sakonago eta landuago batean. Era berean, azken atal honetan bildutako propo- samen-ildoak ere aztertuko direnaren itzaropena dugu.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- > AMONARRIZ, Kike (2019). Gazteen eta irakasleen prestakuntza soziolinguistikoaren beharra. Eskola Hitzun Bila: XXIII. jardunaldia. Sarean eskuragarri: https://www.ulibarri.euskadi.eus/eu/xxiii.jardunaldia_2/-/asset_publisher/ffAYcmBtkZAz/content/ehb-2019-2020-gazteen-eta-irakasleen-prestakuntza-soziolinguistikoaren-beharra-?inheritRedirect=false [Kontsulta-data: 2021/04/12]
- > ARIZMENDI IKASTOLA (2010). *bazara*. Arrasate.
- > EUSKO JAURLARITZA (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), NAFARROAKO GOBERNUA (Euskarabidea) eta EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (2016). VI. *Inkesta Soziolinguistikoa*. Donostia. Sarean eskuragarri: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557 [Kontsulta-data: 2021/05/13]
- > HERNÁNDEZ, Jone Miren (2020). *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia*. Soziolinguistika Klusterra. Sarean eskuragarri: <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/gazteak-euskararen-eszenatokian-erabileraren-auzia/> [Kontsulta-data: 2021/05/8]
- > HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA (2015a) *Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoko curriculum*. Nafarroako Gobernua. Sarean eskuragarri: <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/profesorado/curriculos-y-normativa/eso> [Kontsulta-data: 2021/05/2]
- > HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA (2015b). *Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum*. Nafarroako Gobernua. Sarean eskuragarri: <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/profesorado/curriculos-y-normativa/eso> [Kontsulta-data: 2021/05/2]
- > HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2015). *Oinarrizko hezkuntzako curriculum (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea)*. Eusko Jaurlaritza. Sarean eskuragarri: <https://irale.hezkuntza.net/documents/55483/1253878/Heziberri+2020+Oinarrizko+Hezkuntza++curriculum+osoa.pdf/064da273-0e61-c16a-9197-5bab01bab72a> [Kontsulta-data: 2021/04/27]
- > HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2016). *Batzilergoko curriculum (127/2016eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea)*. Eusko Jaurlaritza. Sarean eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_dec_curriculares/eu_def/adjuntos/Batzilergoko_curriculum_osoa.pdf [Kontsulta-data: 2021/04/27]
- > MARTINEZ DE LUNA, Iñaki eta SUBERBIOLA, Pablo (2020). *EAEko ikasleen euskararen erabileraren eskola-giroan (2011-2017)*. Arrue Proiektua. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu nagusia. Sarean eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dih4/eu_2091/adjuntos/ARRUE_2011_2017_e.pdf [Kontsulta-data: 2021/06/05]

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- > MINISTÈRE DE L'ÉDUCATION NATIONALE ET DE LA JEUNESSE (2019). *Programme de langues, littératures et cultures étrangères et régionales - basque de terminale générale*. Sarean eskuragarri: https://cache.media.eduscol.education.fr/file/SPE8_MENJ_25_7_2019/00/5/spe256_annexe5_1159005.pdf [Kontsulta-data: 2021/05/04]
- > OLAIZOLA, Itsaso (2014). *Elkarrizketa: Itsaso Olaizola*. Kutxa ekogunea. Sarean eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=DEbRddLJGSU> [Kontsulta-data: 2021/04/11]
- > RODRIGUEZ, Txerra (2013). Zer da soziolinguistika zuretzat? *Garaigoikoa: Hizkuntza soziologia (edo soziolinguistika)*. [Blog-eko mezua]. Sarean eskuragarri: <https://blogak.argia.eus/txerra-rodriguez/2013/07/29/zer-da-soziolinguistika-zuretzat/> [Kontsulta-data: 2021/05/12]
- > RODRIGUEZ, Txerra (2014). Nork motibatuko du motibatzailea? *Motibazioa sustatzeko baliabideak*. [Blog-eko mezua]. Sarean eskuragarri: <http://eibz.educacion.navarra.es/blogak/msb/2014/01/28/nork-motibatuko-du-motibatzailea> [Kontsulta-data: 2021/04/005]
- > SARASUA, Jon (2013). *Hiztunpolisa: Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.
- > SOLÉ I CAMARDONS, Joan (1991). *Soziolinguistika gazteentzat*. Bilbo: U.E.U.ko Soziolinguistika Saila.
- > SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2017). *Hizkuntza erabileraren kale-neurketa*. Sarean eskuragarria: https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2021/03/a-hekn2016-_eu_1.pdf [Kontsulta-data: 2021/05/12]
- > UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA (UEMA). (d.g.). *Hedatu: euskararen arnasguneei buruzko hezkuntza proiektua*.
- > URANGA, Belen (d.g.). *Hizkuntza-jarrerak*. Auñamendi Eusko Entziklopedia Fondo Bernardo Estornés Lasa. Sarean eskuragarri: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/hizkuntza-jarrerak/ar-152174/> [Kontsulta-data: 2021/06/5]
- > XUNTA DE GALICIA. CONSELLERÍA DE CULTURA, EDUCACIÓN E ORDENACIÓN UNIVERSITARIA (d.g.a). *Currículo Bacharelato*. Sarean eskuragarri: http://www.edu.xunta.gal/portal/sites/web/files/curriculo_bac_completo.pdf [Kontsulta-data: 2021/06/07]
- > XUNTA DE GALICIA. CONSELLERÍA DE CULTURA, EDUCACIÓN E ORDENACIÓN UNIVERSITARIA (d.g.b). *Currículo Educación Secundaria Obligatoria*. Sarean eskuragarri: http://www.edu.xunta.gal/portal/sites/web/files/curriculo_eso_completo.pdf [Kontsulta-data: 2021/06/07]

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

www.udaltop.eus